

**HALA BADAGOKIO, AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIAK ORDAINSARI FINKOAREN  
% 100ETIK GORAKO ORDAINSARI ALDAKORRA IZATEKO ONARTURIKO  
TERMINOAK, HONAKO HAUEK ADIERAZIZ: FINKATUTAKO GEHIENENKO  
EHUNEKOA, KONTSEILUAK EMANDAKO GOMENDIOA ETA NEURRIAK  
UKITUTAKO LANGILEAK.**

2022an, ordainsari finkoaren gaineko ordainsari aldakorraren ratio efektibo indibidualak ez du % 100eko gehieneko ratioa kasu bakar batean ere gainditu, ratio hori kalkulatzeko arau-esparruan ezarritako arauak aplikatzearen ondorioz ordainsari aldakorrean sortutako urteko osagaiak eta, hala badagokio, urte anitzekoak kontuan hartuta.